**LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN ETA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ARTEKOA, EUSKADIKO OSASUN LIBURUTEGI BIRTUALARI BURUZKOA.**

Osasunaren arloko kalitatezko informazioa izatea funtsezkoa da maila guztietako erabakiak hartzeko, osasungintzako profesionalek, pazienteek eta, oro har, herritarrek etengabeko prestakuntza eta informazioa behar izateak agerian uzten duen moduan. Paradigma hori izan da osasun-sistemen funtsezko zutabeetako bat, eta gaur egun are garrantzitsuagoa da, arrazoi hauengatik: a) Pazienteek eta herritarrek erabakiak hartzen gero eta parte-hartze handiagoa dutelako; b) Aldaketa teknologikoen ondorioz osasun-informazioa gehiago zabaltzen delako eta eskuragarriagoa delako, eta c) Informazioa kalitatearen arabera identifikatu, sailkatu eta lehenesteko beharra dagoelako.

Gaur egungo testuinguru kultural eta teknologikoan, osasun-zientzietan espezializatutako liburutegietako baliabideak eta zerbitzuak paper-euskarria eta aurrez aurreko arreta bakarrik erabiltzetik online formatuetara eta arreta birtualera, hurrenez hurren, pasatu zirenez aspaldi, *de facto*, informazioa eta dokumentazioa kudeatzeko eredu berri bat eraikitzen ari gara. Eredu horretan, alde batetik, lurralde-mugak gainditu behar dira, baliabideen eskuragarritasun demokratikoa bermatzeko, eta, bestetik, osasun-sistemetako profesional guztiei balio erantsiko zerbitzuak eskaini behar zaizkie, haien mendekotasun organikoa edo kokapen fisikoa edozein dela ere, dokumentazioan adituak diren langileen talde-lanaren bidez.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE SALUD DEL GOBIERNO VASCO Y OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD SOBRE LA BIBLIOTECA VIRTUAL DE SALUD DE EUSKADI.**

La información de calidad en salud es crucial para la toma de decisiones a todos los niveles, tal y como se pone de manifiesto en la necesidad de formación e información continua de profesionales sanitarios, pacientes y ciudadanía en general. Este paradigma que ha representado uno de los pilares fundamentales de los sistemas de salud ha adquirido mayor relevancia si cabe actualmente: a) por los cambios derivados de participación incremental de pacientes y ciudadanía en la toma de decisiones; b) por una mayor difusión y acceso a la información en salud determinada por los cambios tecnológicos y; c) por una necesidad de identificar, clasificar y priorizar la información en función de su calidad.

En el contexto cultural y tecnológico actual, y dado que los recursos y servicios de las bibliotecas especializadas en ciencias de la salud hace tiempo que evolucionaron desde el soporte papel y la modalidad exclusivamente presencial a los formatos online y a la atención virtual, respectivamente, asistimos, de facto, a la construcción de un nuevo modelo de gestión informativa y documental en el que: por un lado, se deben trascender los límites territoriales para garantizar el acceso democrático a los recursos, y por el otro, se deben ofrecer servicios de valor añadido a todas las personas profesionales de los sistemas de salud, independientemente de su dependencia orgánica o de su ubicación física, mediante el trabajo en equipo del personal experto en documentación.



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T5RF6-MERF
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MARIA ROSA PEREZ ESQUERDO | 2024/05/22 12:41:25
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA | 2024/05/22 17:02:37

Espezializazio horren eraginez, denborak aurrera egin ahala, Osasun Saileko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko liburutegiek lankidetza-harremanak estutu dituzte, kalitate handiagoko zerbitzuak emateko, lehenik Euskal Osasun Sistemako profesionalei, eta, azkenik, herritarrei.

Esta especialización ha llevado a que, con el paso del tiempo, las bibliotecas del Departamento de Salud y Osakidetza-Servicio vasco de salud, hayan ido estrechando las relaciones de colaboración con el objetivo de prestar servicios de mayor calidad a las y los profesionales del Sistema Vasco de Salud, y, finalmente, a la ciudadanía.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Zuzendaritza Kontseiluak, 2021eko irailean egindako bileran, Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren proiektua osatzeko urratsak egiteko eskatu zion Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari –hari dagokio Osasun Saileko liburutegiak koordinatzeko eginkizuna–.

Por todo ello, el Consejo de dirección del Departamento de Salud del Gobierno Vasco en sesión de septiembre de 2021, solicitó a la Dirección de Investigación e Innovación Sanitarias, a la que corresponde la función de coordinación de las Bibliotecas del Departamento de Salud, que desarrollara los pasos que permitieran conformar un proyecto de Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.

Euskadiko osasun liburutegi birtualak kudeaketa-eredu berri bat du. Eredu horretan, lurraldetasuna gainditu da, eta liburutegiko langileen erabiltzaileekiko hurbiltasun fisikoak garrantzia galdu du; erabiltzaileak zerbitzuaren erreferentzia eta ardatz bihurtu dira, liburutegi birtualaren subjektu.

La biblioteca virtual de salud de Euskadi supone un nuevo modelo de gestión, donde se trasciende la territorialidad y la proximidad física del personal bibliotecario a sus personas usuarias pierde relevancia; éstas se convierten en referencia y centro del servicio, en sujeto de la biblioteca virtual.

Erabiltzaileek informazioa eta zerbitzuak jasotzeko gune bat izango dute, berdintasunezkoa, birtuala eta bakarra, haien kokapen fisikoa edo Euskal Osasun Sistemako entitate bateko edo besteko kide diren alde batera utzita.

Las personas usuarias dispondrán de un punto de información y prestación de servicios igualitario, virtual y único, independientemente de su ubicación física o pertenencia a una u otra entidad del Sistema Vasco de Salud.

Hitzarmen honen bidez, lankidetza-harremanak definitzeko asmoa dago, egonkortasuna emanez jarraitutasuna bermatzeko, Euskadiko Osasun Liburutegi Birtuala proiektuaren bidez antolatuta.

Mediante este convenio se pretende definir las relaciones de colaboración para dotarlas de una estabilidad que garantice su continuidad, articulándolas a través del proyecto Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.

**HAUEK BILDU DIRA**

**REUNIDAS**

Alde batetik, Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea, Eusko Jaurlaritzaren

De una parte, la Sra. Dña. Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea, Consejera del

Osasuneko sailburua, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 4. artikuluak aitortzen dizkion eskumenak baliatuz.

Departamento de Salud del Gobierno Vasco, en virtud de las competencias que le son reconocidas en el artículo 4 del Decreto 116/2021, de 23 de marzo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud.

Beste aldetik, María Rosa Pérez Esquerdo andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko (aurrerantzean, Osakidetza) zuzendari nagusia, haren izenean eta hura ordezkatuz jarduteko gaitua, 255/1997 Dekretuarekin bat etorriz (ente publikoaren estatutuak ezartzen dituena), estatutu horien 11. artikuluak ematen dizkion eskumenak baliatuz.

De otra parte, la Sra. Dña. María Rosa Pérez Esquerdo, Directora General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud (en adelante Osakidetza), habilitada para actuar en su nombre y representación, de conformidad con el Decreto 255/1997, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público, en ejercicio de las competencias que le son atribuidas por el artículo 11 de dichos Estatutos.

Sinatzaileek, dagokien kargua betez dihardutela, hitzarmen hau sinatzeko behar den lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Las firmantes, que actúan en razón de sus respectivos cargos, se reconocen, mutua y recíprocamente con capacidad legal suficiente para subscribir el presente Convenio y, a tal efecto,

**ADIERAZTEN DUTE**

**EXPONEN**

**LEHENENGOA.** - Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 1.f) artikuluan jasotzen denez, honako egiteko hauek dagozkio sail horri: «Sailari atxikita dauden organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera».

**PRIMERO**. - El Decreto 116/2021, de 23 de marzo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud, recoge en su artículo1 f) que es función propia del mismo "dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritas o dependientes del departamento".

2. artikuluak «Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoa Osasun Sailari atxikitzen dio».

El artículo 2 "adscribe al Departamento de Salud el Ente Público de derecho privado Osakidetza-Servicio vasco de salud".

11.ñ) artikuluan ezartzen denez, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak egiteko hauek izango ditu: *«Saileko dokumentazio-eremua eta liburutegi espezializatuak zuzendu,*

En su artículo 11 ñ), establece como función propia de la Dirección de Investigación e Innovación Sanitarias: *"La dirección, organización y gestión del área de*

*antolatu eta kudeatzea, literatura zientifikoaren hedapena errazteko eta osasuneko profesionalei osasun-alorreko informazio bibliografiko espezializatua eta kalitatezkoa emateko, hargatik eragotzi gabe Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagozkion eskudantziak».*

*documentación y bibliotecas especializadas del Departamento, con objeto de facilitar la difusión de literatura científica y proporcionar a las y los profesionales de la salud información bibliográfica especializada y de calidad en materia de salud, sin perjuicio de las atribuciones que correspondan al Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno".*

**BIGARRENA.** - «Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua» Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 3. artikuluan xedeari buruz jasotzen denaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoak ondoren zerrendatzen diren herri-onurako xedeak bilatuko ditu bere mendeko erakundeen bitartez:

...

*c) Osasun–zientzietan irakaskuntza sustatzea, baita horrelako zientziekin loturiko ikerlanak, azterlanak eta zabalkunde–lanak sustatu ere, Osasun Sailak ezartzen dituen estrategia-ildoak eta programak kontuan izanda, eta arlo horretako unibertsitateekin eta gainerako eskudun erakundeekin hitzartzen den lankidetza aintzat harturik.*

*d) Langile sanitarioek eta ez sanitarioek dituzten ezaguera espezializatuak eguneratzea eta prestakuntza sustatzea, bai osasunaren arloan, bai kudeaketa zein administrazio sanitarioetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren burua bertako zuzendari nagusia izango da, hau da, kudeaketako zuzendaritza-kargudun gorena, Antolamendu Sanitarioaren Legearen 27. artikuluaren araubideari lotuta, eta Erakunde Zentralaren eginkizunak zuzentzeaz gain, zerbitzu guztien zuzendaritza ere berari egokituko zaio.

**SEGUNDO.** - El Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público «Osakidetza-Servicio vasco de salud», en su art. 3 establece en desarrollo de su objeto, que el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud perseguirá a través de todas sus organizaciones los fines de interés general que a continuación se enumeran:

...

*c) Promover la docencia en ciencias de la salud, así como las actividades de investigación, estudio y divulgación relacionadas con las mismas, de acuerdo con las líneas estratégicas y programas que establezca el Departamento de Sanidad y con la colaboración que se establezca con Universidades y demás instituciones competentes en la materia.*

*d) Promover la formación y actualización de los conocimientos especializados que requiere su personal sanitario y no sanitario, tanto en el campo específico de la salud como en los de la gestión y administración sanitarias.*

Al frente del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud se encontrará el o la Directora General del mismo, considerado como el cargo directivo superior de gestión, sujeto al régimen del artículo 27 de la Ley de Ordenación sanitaria y al que, además de dirigir las funciones de la Organización Central, le corresponderá la dirección de todos los servicios.

Zerbitzuen zuzendaritzaren garapenean, Giza Baliabideen Zuzendaritzan Liburutegi Birtualeko Zerbitzu Korporatiboko Buruaren lanpostua betetzeko deialdia argitaratzen duen Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 10eko 794/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak honako eginkizun hauek ezarri zizkion zerbitzuburuari, besteak beste:

• *Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren Zuzendaritza Batzordeko kide izatea. Beraz, Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren Kudeaketa Plana planifikatzetik, hedatzetik eta abiaraztetik eratorritako erabaki guztien parte aktiboa izan beharko du.*

**HIRUGARRENA.** - Bai Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila bai Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ados daude Euskadiko Osasun Liburutegi Birtuala edukiz hornitzeko lankidetzan aritzearekin.

**KLAUSULAK**

**Lehenengoa. -** Xedea.

Honako hau da lankidetza-hitzarmen honen xedea: Euskal Osasun Sistemako antolakundeentzako eta haren mendeko entitate eta organismoentzako baliabide bibliografikoak, teknologikoak eta giza baliabideak zein dokumentazio-zerbitzuak antolatzea, Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren euskarri izan daitezen.

**Bigarrena. -** Onuradunak.

Bai Osasun Sailak bai Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak aldez aurretik onartzen dituzten beren egituretako pertsonek eskuratu ahal izango dituzte Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualeko baliabideak.

En el desarrollo de la dirección de los servicios, Osakidetza-Servicio vasco de salud mediante Resolución 794/2022, de 10 de octubre, de la Directora de Recursos Humanos, por la que se convoca la provisión del puesto de Jefe/a de Servicio Corporativo de la Biblioteca Virtual en la Dirección de Recursos Humanos, establece entre otras funciones del mismo la siguiente:

•*Ser persona miembro del Comité Director de la Biblioteca Virtual Salud de Euskadi y, como tal, deberá ser parte activa de todas las decisiones que se deriven de la planificación, despliegue y puesta en marcha del Plan de Gestión de Biblioteca Virtual Salud de Euskadi.*

**TERCERO.** -Tanto el Departamento de Salud del Gobierno Vasco como Osakidetza-Servicio vasco de salud están de acuerdo en establecer una colaboración para dotar de contenido a la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi

**CLÁUSULAS**

**Primera. –**Objeto.

El objeto de este convenio de colaboración es ordenar los recursos bibliográficos, tecnológicos y humanos, y los servicios documentales para las organizaciones del Sistema Vasco de Salud y sus entidades y organismos dependientes, con el fin de sustentar la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.

**Segunda. -** Personas beneficiarias.

El acceso a los recursos de la Biblioteca Virtual de salud de Euskadi se facilitará a aquellas personas de sus respectivas estructuras que tanto el Departamento de Salud como Osakidetza-Servicio vasco de salud puedan previamente reconocer.

Gainera, herritarrak sarbide irekiko baliabideen onuradun izango dira.

Kasua bada, beste entitate publiko eta/edo pribatu batzuetako profesionalei sarbidea emango zaie, beste lankidetza-hitzarmen eta/edo kontratu batzuk erabiliz. Hitzarmen edo kontratu horietan bi alderdi sinatzaileek parte hartu behar dute nahitaez.

**Hirugarrena. -** Gobernantza: Egitura eta funtzioak.

Osasun Sailari zein Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari dagokie Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren gobernantza. Honela zehaztuta dago:

- Zuzendaritza-maila (Zuzendaritza-batzorde Paritarioa).
- Maila teknikoa (Batzorde Teknikoa).
- Lantaldeak.

1.– Zuzendaritza-batzorde Paritarioa:

Hauek dira Zuzendaritza-batzorde Paritarioko kideak:

- Osasun Sailaren aldetik:
  - Osasuneko sailburua (lehendakaritza).
  - Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria edo liburutegien arloko ardura duen Osasun Saileko karguduna (lehen lehendakariordea).
  - Euskadiko Osasun Liburutegi Birtuala koordinatzen duen pertsona, liburutegien arloaren ardura duen Osasun Saileko zuzendariak izendatua (idazkaritza).

Además, la ciudadanía será beneficiaria de los recursos de acceso abierto.

En su caso, se procurará el acceso de profesionales de otras entidades públicas y/o privadas mediante la utilización de otros convenios de colaboración y/o contratos en los que participen necesariamente las dos partes suscribientes.

**Tercera. -** Gobernanza: Estructura y funciones.

Corresponde tanto al Departamento de Salud como a Osakidetza-Servicio vasco de salud la gobernanza de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi, detallada como sigue:

- Nivel de dirección (Comisión directiva paritaria).
- Nivel técnico (Comité técnico).
- Grupos de trabajo.

1. La Comisión directiva paritaria:

Conforman la Comisión directiva paritaria:

- Por parte del Departamento de Salud:
  - Consejero/a de Salud (presidencia).
  - Director/a de Investigación e Innovación Sanitarias o cargo en el que resida la responsabilidad del área de bibliotecas del Departamento de Salud (vicepresidencia primera).
  - Persona que desempeñe la coordinación de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi, designada por el director/a en el que resida la responsabilidad del área de bibliotecas del Departamento

de Salud (secretaría).

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren aldetik:
  - Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia (lehendakariordetza).
  - Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendaria edo liburutegien arloko ardura duen Osakidetzako kargudun baliokidea (batzordekidea).
  - Osakidetzako Giza Baliabideetako Garapen eta Prestakuntzako zuzendariorde korporatiboa edo liburutegien arloko azken ardura duen Osakidetzako kargudun baliokidea (batzordekidea).

- Por parte de Osakidetza-Servicio vasco de salud:
  - Director/a General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud (vicepresidencia).
  - Director/a de Recursos Humanos de Osakidetza o cargo equivalente en el que resida la responsabilidad del área de bibliotecas de Osakidetza (vocalía).
  - Subdirector/a corporativo/a de Desarrollo y Formación de Recursos Humanos de Osakidetza o cargo equivalente del que dependa la responsabilidad última del área de bibliotecas de Osakidetza (vocalía).

Zuzendaritza-batzorde Paritarioaren eginkizunak:

- Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren estrategia diseinatzea eta gidatzea.
- Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren urteko kudeaketa-plana onartzea. Planak honako hauek barne hartuko ditu:
  - Erosketa-politikei buruz erabakitzea eta harpidetza berriak onartzea edo baliogabetzea, urteko adierazleetan oinarrituta.
  - Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren erabiltzaileentzako prestakuntza-plana onartzea.
- Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualak ondo funtzionatzeko egokitzat hartzen diren beste batzuk.

Funciones de la Comisión directiva paritaria:

- Diseñar y pilotar la Estrategia de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.
- Aprobar el plan de gestión anual de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi, en el que se incluye:
  - Decidir sobre las políticas de compras y aprobar nuevas adquisiciones o cancelación de suscripciones sobre la base de indicadores anuales.
  - Aprobar el plan de formación de personas usuarias de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.
- Otras que se consideren para el buen funcionamiento de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.

Bileren funtzionamendua eta maiztasuna.

- Batzordea hiru hilean behin

Modo de funcionamiento y periodicidad de las reuniones.

- La comisión se reunirá

bilduko da, non eta ez dagoen maiztasuna aldatzeko arrazoirik.

2.– Batzorde Teknikoa.

Hauek dira Batzorde Teknikoko kideak:

- Osasun Sailaren aldetik:
  - Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren koordinatzailea, liburutegien arloaren ardura duen Osasun Saileko zuzendariak izendatua.
  - Osasun Saileko liburutegien 2 ordezkari.
- Osakidetzaren aldetik:
  - Osakidetzako Liburutegi Birtualeko Zerbitzu Korporatiboko burua.
  - Osakidetzako liburutegien 2 ordezkari.

Batzorde Teknikoaren eginkizunak:

- Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren urteko kudeaketa-plana egitea. Planak honako hauek barne hartuko ditu:
  - Erosketa-politikak proposatzea eta harpidetza berriak egiteko edo baliogabetzeko oniritzia eskatzea.
  - Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren erabiltzaileentzako prestakuntza-plana egitea.
- EOLB proiektuan antolakunde berriak sartzea proposatzea, bai eta haiek sartzeko baldintzak ere.
- Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualak ondo funtzionatzeko egokitzat hartzen diren beste

trimestralmente, salvo que circunstancias aconsejen una periodicidad diferente.

2. El Comité técnico.

Conforman el Comité técnico:

- Por parte del Departamento de Salud:
  - Persona que desempeñe la coordinación de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi, designada por el director/a en el que resida la responsabilidad del área de bibliotecas del Departamento de Salud.
  - 2 representantes de las bibliotecas del Departamento de Salud.
- Por parte de Osakidetza:
  - Jefe/a de Servicio Corporativo de la Biblioteca Virtual de Osakidetza.
  - 2 representantes de las bibliotecas de Osakidetza.

Funciones del Comité técnico:

- Elaborar el plan de gestión anual de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi en el que se incluye:
  - Proponer políticas de compras y elevar para aprobación nuevas adquisiciones o cancelación de suscripciones.
  - Elaborar un plan de formación de personas usuarias de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.
- Proponer la incorporación de nuevas organizaciones y las condiciones de dichas incorporaciones en el proyecto BVSE
- Otras que se consideren para el

batzuk.

buen funcionamiento de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.

Bileren funtzionamendua eta maiztasuna.

Modo de funcionamiento y periodicidad de las reuniones.

Batzorde Teknikoak, kudeaketa-organo bat denez, Zuzendaritza Batzordeari helaraziko dio informazioa, erabakiak har ditzan. Batzorde hori hilero bilduko da, non eta ez dagoen maiztasuna aldatzeko arrazoirik.

El Comité técnico, al ser un órgano de gestión, elevará la información a la Comisión directiva para la toma de decisiones. Este comité se reunirá mensualmente, salvo que circunstancias aconsejen una periodicidad diferente.

3.– Lantaldeak.

3. Los Grupos de Trabajo.

Zuzendaritza-batzorde Paritarioaren zein Batzorde Teknikoaren arabera dauden behar zehatzei jarraituz eratuko dira, eta osaera paritarioa izateko ahalegina egingo da.

Se constituirán en función de las concretas necesidades que se puedan considerar tanto por la Comisión directiva paritaria como por el Comité Técnico, procurando mantener una composición paritaria.

**Laugarrena.-** Langileen ekarpena.

**Cuarta.-** Aportación de personal.

Osakidetzak zein Osasun Sailak beren antolakunde eta ordezkaritzetan dituzten liburutegiko profesional teknikoak eta liburutegiaren arloari lotutako laguntzako administrariak bideratuko dituzte Euskadiko Liburutegi Birtuala eratzera eta bertan lan egitera, eta proiektuaren garapenak eskatzen dituen beste giza baliabide batzuk ere jarriko dituzte.

Tanto Osakidetza como el Departamento de Salud aportarán para la constitución y funcionamiento de la Biblioteca Virtual de Euskadi las y los profesionales técnicas/os bibliotecarias/os de que disponen en sus diferentes organizaciones y delegaciones, y el personal administrativo de apoyo vinculado al área de biblioteca, además de otros recursos humanos que el desarrollo del proyecto vaya demandando.

Zuzendaritza-batzorde Paritarioak zehaztuko du langileen hornidura eta antolaketa, Batzorde Teknikoak proposatuta.

La dotación de personal y su organización será definida por la Comisión directiva paritaria, a propuesta del Comité técnico.

**Bosgarrena.-** Garapen intelektualen eta azpiegitura teknologikoaren ekarpena.

**Quinta.-** Aportación de desarrollos intelectuales e infraestructura tecnológica.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak azpiegitura teknologiko eta garapen intelektual hauek jarriko ditu:

El Departamento de Salud del Gobierno Vasco aportará las siguientes infraestructuras tecnológicas y desarrollos intelectuales:

- Webgune bat, Osasun Sailaren barruan.

- Site web alojado en el Departamento de Salud.

- Aurkikuntza-tresna.
- Ezagutzaren ataria (tresna).
- Autentifikatzaile bat, Osasun Saileko eta Euskadiko Osasun Liburutegi Birtuala osatzen duten beste antolakunde batzuetako profesionalentzat sarbide bakarra bermatzeko.
- Osasun Saileko profesionalen ekoizpen propioa Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren ezagutzaren atarian eta gordailuan sartuko du.
- Eginda dauden prestakuntza-material estatikoak eta dinamikoak liburutegian sartuko ditu.

- Herramienta de Descubrimiento.
- Portal del conocimiento (Herramienta).
- Autentificador que garantice un acceso único para las y los profesionales del Departamento de Salud y de otras organizaciones que conforman la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.
- Incorporación de la producción propia de las y los profesionales del Departamento de salud al portal de conocimiento y repositorio de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.
- Incorporación de materiales de formación estáticos y dinámicos existentes al site de la biblioteca.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren kasuan, honako azpiegitura teknologiko eta garapen intelektual hauek jarriko ditu etengabe eskuragarri:

- Datu-baseetarako eta harpidetutako informazio-baliabideetarako sarbidea. Aurkikuntza-tresnaren bidez eskuratu ahal izango dira.
- Autentifikatzaile bat, Osakidetzako profesionalentzat sarbide bakarra bermatzeko.
- Dokumentu bibliografikoak hornitu eta eskuratzeko tresna (GTBIB-SOD).
- Osakidetzako profesionalen ekoizpen propioko elementuak Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren ezagutzaren atarian eta gordailuan sartuko ditu.
- Eginda dauden prestakuntza-material estatikoak eta dinamikoak prestakuntzaren atarian sartuko ditu.

En el caso de Osakidetza-Servicio vasco de salud facilitará de manera continua las siguientes infraestructuras tecnológicas y desarrollos intelectuales:

- Acceso a las bases de datos y recursos de información suscritos que se incluirán en los accesos desde la herramienta de descubrimiento.
- Autentificador que garantice un acceso único para los profesionales de Osakidetza.
- Herramienta de suministro y obtención de documentos bibliográficos (GTBIB-SOD).
- Incorporación de los elementos de producción propia de las y los profesionales de Osakidetza al portal del conocimiento y repositorio de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.
- Incorporación de materiales de formación estáticos y dinámicos existentes al portal de formación.

**Seigarrena**.- Ekarpen ekonomikoa.

**Sexta.-** Aportación económica.

Osasun Sailak urteko aurrekontu-zuzkidurari eutsiko dio, eta zerbitzuaren kostu-handitzeen arabera eguneratuko du, sistema kontratatu ohi dituen baliabide bibliografikoez hornitzeko, bai eta Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren funtzionamendurako beharrezkoak diren tresna teknologikoez ere.

El Departamento de Salud mantendrá la dotación presupuestaria anual y su actualización acorde a los costes incrementales del servicio, con el fin de proveer al Sistema de los recursos bibliográficos que habitualmente contrata, así como de las herramientas tecnológicas necesarias para el funcionamiento de la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak, urtero, indarrean dagoen Kontratu Programan kontraprestazio gisa aurreikusitako finantzaketaren kargura, ohiko aurrekontua erabiliko du Osakidetzako Liburutegi Birtuala osatzen duten baliabide bibliografikoen harpidetzak mantentzeko, bai eta horien kontsultak eta zerbitzuak berekin dakartzaten tresna teknologikoetarako ere.

Osakidetza-Servicio vasco de salud destinará anualmente, con cargo a la financiación prevista como contraprestación en el Contrato Programa vigente, el presupuesto habitual para el mantenimiento de las suscripciones a recursos bibliográficos que conforman la Biblioteca Virtual de Osakidetza y a las herramientas tecnológicas que su consulta y servicio llevan aparejadas.

**Zazpigarrena.-** Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak.

**Séptima.-** Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes.

Zuzendaritza-batzorde Paritarioak hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen arazoak konponduko ditu, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak betetzen direla zainduko du eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartuko ditu.

La Comisión directiva paritaria resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento del presente convenio que puedan plantearse, velando por el cumplimiento de las acciones especificadas en este convenio y adoptando las medidas que puedan resultar necesarias para el uso eficiente de los recursos.

**Zortzigarrena.-** Indarraldia eta indargabetzea.

**Octava.-** Vigencia y resolución.

1.– Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, sinatzen denetik hasita.

1. El presente Convenio tendrá la validez de cuatro años, a contar desde su firma.

2.– Aurreko puntuan aurreikusitako epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek hitzarmena beste lau urterako luzatzea edo hitzarmena azkentzea erabaki ahal izango dute.

2. En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el punto anterior, los firmantes del convenio podrán acordar su prórroga por un período de cuatro años adicionales o su extinción.

3.– Aurrekoa gorabehera, hauek izango dira hitzarmen hau indargabetzeko arrazoi:

a) Hitzarmena sinatu duten entitateak horretan bat etortzea; hala bada, idatziz egin beharko da.

b) Alderdi sinatzaileetako batek hitzarmena salatzea. Hori idatziz formalizatu beharko da, aurreikusitako amaiera-data baino hilabete lehenago gutxienez.

c) Hitzarmenaren xede diren jarduerak egiteko legezko ezintasuna edo ezintasun materiala bat-batean agertzea.

d) Haren klausuletako edozeinen ez-betetze larria.

Eta adostasunaren frogagiri gisa, bi alderdiek hitzarmen hau sinatzen dute.

3. Sin perjuicio de lo anterior, son causas de resolución del presente Convenio:

a) El acuerdo de ambas entidades firmantes, que deberá instrumentarse por escrito.

b) La denuncia de una de las partes firmantes, la cual deberá formalizarse por escrito con una antelación mínima de un mes sobre la fecha prevista del vencimiento.

c) La imposibilidad sobrevenida, legal o material, de desarrollar las actividades que constituyen el objeto del Convenio.

d) El incumplimiento grave de cualquiera de sus cláusulas.

Y, en prueba de su conformidad, ambas partes suscriben el presente Convenio.

Osasun Sailaren izenean / Por el Departamento de Salud

Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren izenean / Por Osakidetza-Servicio vasco de salud

María Rosa Pérez Esquerdo